

GARRANTZITSUENA ZURE OSASUNA DA, EZ UTZI ALDE BATERA!!

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

elika
Fundación Vasca para la
Seguridad Alimentaria
Nekazaritzako Elkarteen
Segurtasunerako
Eusko Fundazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA BIKULTURAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

PRODUKTU FITOSANITARIOAK BILTEGIRATZEA NEKAZARITZA- USTIATEGIETAN

JARDUNBIDE EGOKIEN GOMENDIOAK

KOKATZEA

Ordена jarri produktu fitosanitarioetan!!

- Jarri fitosanitario solidoak leku garai batean, eta jarri modu likidoan merkaturatzen direnak zure apalen beheko aldean.
- Jarri edukiera handiko fitosanitario pisutsuak beheko apalategietan.
- Ordenatu produktuak arriskuaren (toxikoak, narritagarriak, kaltegarriak) eta ekintza motaren (intsektizidak, fungizidak, akarizidak, herbizidak...) arabera.
- Errespetatu BATERAEZINTASUNAK izan ditzaketen produktuen bereizketa fisikoa:
 - o Herbizidak gainerako fitosanitarioetatik bereizita gorde behar dira.
 - o Produktu sukoiak gainerako produktuetatik bereizi behar dira.
 - o Ez jarri inoiz toxikoak korrosiboekin.

MANIPULAZIOA

Planifikatu eta ezagutu erabiltzen dituzun produktu fitosanitarioak!!

- Programatu erosketak biltegiratze-denbora murrizteko eta soberakinak saihesteko.
- Irakurri etiketa biltegiratzeko jarraibideak ezagutzeko.
- Erabili lehenik biltegira lehenago sartu den produktua "Lehena iristen, lehena irteten".
- Aldian-aldian berrikusi produktu fitosanitarioak; detektatu iraungitako produktuak eta ROPMFen (Produktu eta Material Fitosanitarioen Erregistro Ofiziala) erregistratuta ez daudenak, eta horiek berritu.
- Egin biltegiratutako produktu fitosanitarioen erregistro eguneratua.

SEGURTASUN-NEURRIAK

GARRANTZITSUENA ZURE OSASUNA DA, EZ UTZI ALDE BATERA!!

Gogoan izan produktu fitosanitarioa nahasten denean izaten duzula arriskurik handiena, materia aktiboak kontzentrazio handiena baitu. Ipini arreta berezia urrats horretan eta ERABILI BABESTEKO EKIPAMENDU EGOKIA!!

- Garbitu eskuak maiz (eskularruak jantzi baino lehen, kendu baino lehen eta kendu ondoren).
- Dutzatu tratamendu bakoitzaren ondoren.
- EZ JAN, EZ EDAN ETA EZ ERABILI TELEFONO MUGIKORRA TRATAMENDUAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN.



FITOSANITARIOAK BILTEGIRATZEAN BETE BEHARREKO ARAUAK

LOKALEN/ARMAIRUEN BALDINTZAK

- Jendea bizi den edozein lokaletako **obra-paretak bereiziko ditu.**
- **Erregaia ez den materialez** eginda egongo dira.
- **Barnealdea** muturreko kanpoko tenperaturetatik eta hezeta-sunetik **babestuta** egongo da.
- **Aireztapen** naturala edo behartua izango dute, eta kanporako irteera izango du.
- **Ez** dira egongo azaleko **ur-masetatik** edo ura ateratzeko putzuetatik **hurbil dauden lekuetan**, ezta ur-goraldietan urez bete daitezkeen eremuetan ere.
- Ustiatigitik kanpoko langileak, batez ere adingabeak, ez sartzeko **sarraila** izango dute.

KOKATZEA

- Fitosanitarioak jatorrizko ontzietan **gordeko dira**, posizio bertikalean, itxitura gorantz dutela, eta etiketa originala, osoa eta irakurgarria dutela.
- **Ontzia ireki** eta eduki osoa erabiltzen ez bada, gainerakoa ontzi berean mantendu beharko da, tapoia itxita eta etiketa osorik eta irakurtzeko moduan mantenduz.
- **Ez dira** tresnak, landare-materiala, elikagaiak edo pentsuak biltegitratuko produktu fitosanitarioak **biltegitratzen** diren armairu edo gelen barruan.

SEGURTASUN-NEURRIAK

- **Norbera babesteko ekipamenduak** (NBE) erabiliko dira, hala nola eskularruak, buzoa, botak, maskarak eta begietarako babesa, fitosanitarioak manipulatu, hazkuntza-likidoa prestatu eta tratamenduak egin behar badira.
- **Debekatuta dago erretzea** produktu fitosanitarioak biltegitratzeko tokian.
- Bitarteko egokiak jarriko dira **ustekabeko isuriak** biltzeko.
- **Edukiontzi egokitu** bat egongo da ustekabeko edozein isurketaren hondakinak isolatzeko, dagokion hondakin-kudeatzaileari eman arte.
Edukiontzi horiek ez dira izango kaltetutako ontziak eta ontzi hutsak biltzeko erabiltzen direnak.
- Produktu likidoek **eusteko sistema** bat izango da, produktu horiek kanpora ateratzea eragotziko duena.
- **Segurtasun-aholkuak**, larrialdietarako telefonoak eta jarraitu beharreko prozedurak **kontuan hartuko** dira.

MANIPULAZIOA

- Ezin izango dira biltegitratu **iraungitze-data** iraungita duten, kendu diren edo baimenduta ez dauden produktu fitosanitarioak.
- **Ontzi hutsak eman egingo dira**, irakuzketa hirukoitza egin ondoren, eta kudeatzaile baimendu baten bidez kudeatuko dira (puntu berdea, kooperatiba...).

ARAUDIA

- 285/2021 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, produktu fitosanitarioen biltegitratze-baldintzak ezartzen dituena.
- 1311/2012 Errege Dekretua, irailaren 14koa, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena.
- 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek norbera babesteko ekipamendua erabiltzeari buruzko laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa.

APLIKATZAILEAK

- **Aplikatzaile-txartela** edukiko da, eta ROPO delakoan (Ekoizleen eta Operadoreen Erregistro Ofizialean) inskribatuta egon beharko da.

